



2019SPLE0016
16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 16
EGUNA: 2019/11/28
ORDUA: 19:30
TOKIA: Udaleko Pleno Aretoa.

Nº : 16
DÍA: 28/11/2019
HORA: 19:30
LUGAR: Sal6n de Plenos del Ayuntamiento.

BERTARATUAK:

Gilen Garc3a Boyra, alkatea

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambronero
Eneritz G3mez
Miren Esnal

Idazkaria: Jorge Gonz3lez Endemaño

ASISTENTES:

Gilen Garc3a Boyra, alcalde

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea
Ane Miren Egidazu
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambronero
Eneritz G3mez
Miren Esnal

Secretario: Jorge Gonz3lez Endemaño



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

1. AURREKO BILKUREI DAGOZKIEN AKTEN ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Pedro Bengoetxea: zenbait gauza ez dira agertzen aktetan.

Idazkaria: aktan ez dago eztabaida dena jaso beharrik, grabazioa egin bait da. Idatzizko aktak eta bideoak elkarrekin daude web orrian.

Ane Egidazu: Ez da eztabaida kontua. Gertatzen da gu ez geundela ados puntu batekin, eta aldaketa proposatzen dugula eta aktan ez dela hori jasotzen. Neretzat ez da gauza bera.

Gilen: Aktak egiterakoan lana errazteko egiten da horrela. Agian gehiago zehaztu beharko da idatzizko aktan.

Udalbatzak, aho batez, onartu ditu 2019/10/30 eta 2019/11/18ko saioei dagozkien aktak.

Idazkaria: (Aneri) akten zirriborroak onartzeko saio hauetan zuek aurkeztu dezakezue egin nahi dituzuen aldaketak aktetan.

Iñigo Cambronero: aktan ez bakarrik parte-hartzeak, baita iradokizunak, proposamenak, eskaerak egoten dira. Badakit oso zaila dela pleno bat transkribatzea baina uste dut esfortzu bat egin behar dela gauza horiek jasotzeko. Bideoa gustatzen zait baina uste

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.

Pedro Bengoetxea: algunas cosas no aparecen en las actas.

Secretario: no es necesario recoger toda la discusión en las actas porque se ha realizado una grabación. Las actas escritas y los videos están en la página web.

Ane Egidazu: No es cuestión de las discusiones. Resulta que nosotros no estábamos de acuerdo con un punto y que proponíamos un cambio y en el acta no se recoge. Para mí no es lo mismo.

Gilen: Se realiza de este modo para facilitar el trabajo al realizar las actas. Quizás haya que especificar más en las actas escritas.

El pleno de la corporación, por unanimidad, aprueba las actas correspondientes a las sesiones de 30/10/2019 y 18/11/2019.

Secretario: (Dirigiéndose a Ane) en estos puntos de aprobación de borradores de actas, podéis presentar los cambios que deseáis realizar en las actas.

Iñigo Cambronero: en las actas no solo se recogen las intervenciones, también sugerencias, propuestas, peticiones. Ya sé que es muy difícil transcribir un pleno, pero creo que hay que hacer un esfuerzo para recoger esas cosas. Me gusta el video, pero creo que las cuestiones básicas, preguntas,



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

dut funtsezko gauzak, galderak, eska-
erak... jaso beharko liratekeela, eta ez
dira jaso.

peticiones... habría que recogerlas y no
se ha hecho.

Gilen: Erdi bide bat topatzea saiatu be-
harko litzateke. Oraingoa laburregia
dela uste du gehiengoak. Idazkariari
eskatuko diogu parte-hartzeen labur-
pena edo eskema bat aktan jasotzeko.

Gilen: Habría que tratar de encontrar
un término medio. La mayoría piensa
que el método actual es demasiado
escaso. Pediremos al secretario que
recoja un resumen o esquema de las
intervenciones en las actas.

Ane Egidazuk aurreko aktetan agertzea
nahi dituen aldaketak aipatzen ditu.

Ane Egidazu menciona los cambios que
quiere que se recojan en las actas
anteriores.

2. ALKATETZA DEKRETUAK

2. DECRETOS DE ALCALDÍA

Bertaratuak jakinaren gainean geratu
dira ondorengoaz:

Los asistentes quedan informados de
las siguientes Resoluciones:

| | | | |
|-----|------------|---|--------------|
| 298 | 2019/10/24 | Obra txikia. Astillero 14, Agirre Jauregi alboko terraza txikian tela asfaltikoa jartzeko baimena ematea. | 2019UOME0124 |
| 299 | 2019/10/24 | Eguneko zentrorako langile bat kontratatzea, langile baten oporrak ordezkatzeko. | |
| 301 | 2019/10/24 | Euskal Jolas pilota elkarteari dirulaguntza ematea. | |
| 302 | 2019/10/24 | Iruleak emakume palista klubari dirulaguntza ematea. | |
| 303 | 2019/10/24 | Obra txikia. Santuaran baserriko teilatua berritzeko baimena ematea. | 2018UOME0096 |
| 304 | 2019/10/25 | Biztanlearen erroldan udalak sustatutako ofiziozko baja. | 2019SEBO0018 |
| 305 | 2019/10/25 | Eskatutako gizarte larrialdietarako dirulaguntza ez ematea. | 2019GAES0002 |



DEBAKO UDALA

2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

| | | | |
|-----|------------|---|--------------|
| 306 | 2019/10/25 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea. | 2019SEBO00XX |
| 307 | 2019/10/28 | Obra txikia. Astillero Kalea 1, 10A etxebizitzan komuna berritzeko baimena ematea. | 2019UOME0120 |
| 308 | 2019/10/28 | Obra txikia. Mogel Kalea 14, 2B etxebizitzan sukaldea berritzeko baimena ematea. | 2019UOME0121 |
| 309 | 2019/10/28 | Obra txikia. Santuaran Goikoa baserria erreformatzeko baimena ematea. | 2019UOME0118 |
| 310 | 2019/10/29 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagozkion 108/2019 eta 109/2019 erreziboak ezeztatzea. | |
| 311 | 2019/10/29 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion 120/2019 erreziboa ezeztatzea. | |
| 312 | 2019/10/29 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagozkion 66-67-110-111/2019 erreziboak ezeztatzea. | |
| 313 | 2019/10/29 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagozkion 68-69-112-113/2019 erreziboak ezeztatzea. | |
| 314 | 2019/10/29 | Adin txikikoei psikoterapia zerbitzua ematea. | 2019SCOU0044 |
| 315 | 2019/10/30 | Bi langile kontratatzea brigadako operario gisa. | |
| 316 | 2019/10/31 | Lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzeko dirulaguntza eskaera egitea. | |
| 317 | 2019/11/04 | Eguneko zentrorako langile bat kontratatzea, langile bati emandako baimena ordezkatzeko. | |
| 318 | 2019/11/05 | Jorge González Endemaño trafiko eta bide segurtasuneko gaietako jardunbide zigortzailetan instruktore izendatzea. | |
| 319 | 2019/11/06 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion 79/2019 erreziboa ezeztatzea. | |



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

| | | | |
|-----|------------|--|--------------|
| 320 | 2019/11/06 | Bi abokatu eta prokuradoreari auzitarako ahalorde orokorra ematea. | |
| 321 | 2019/11/06 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion 73/2019 erreziboa ezeztatzea. | |
| 322 | 2019/11/06 | 2020ko Egutegi fiskala. | |
| 323 | 2019/11/08 | Erlete goikoa baserrian txakolindegia egiteko eraikinaren 1go fasea egiteko baimena ematea. | 2019UROM0019 |
| 324 | 2019/11/11 | Debako hilerri berria egiteko obra gelditzea. | |
| 325 | 2019/11/12 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea. | 2019SEBO0020 |
| 326 | 2019/11/12 | Biztanlearen erroldan ofiziozko baja ematea. | 2019SEBO0021 |
| 327 | 2019/11/13 | Udaltzaingorako langile bat kontratatzea sei hilabeterako. | |
| 328 | 2019/11/14 | Ondasunen gaineko erantzunkizunagatiko espedientea tramitatzeko aplikagarri den araudia eta Idazkaritzako txostena igortzea. | 2019SRRP0004 |
| 329 | 2019/11/15 | Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagozkion 74 eta 75/2019 erreziboak ezeztatzea. | |

Pedro Bengoetxeak azalpena eskatzen du 318 dekretuari buruz. Gilenek erantzuten dio.

Pedro Bengoetxea solicita una aclaración sobre el decreto 318. Gilen responde a su solicitud.

**3. 151/2019 PROZEDURA
LABURTUAN JESUS M^a
ARRIZABALAGA URBIETAREN
AUZIA AITORTZEKO
PROPOSAMENA**

**3. PROPUESTA DE
RECONOCIMIENTO DE LA
PRETENSIÓN DE JESUS M^a
ARRIZABALAGA URBIETA EN EL
PROCEDIMIENTO ABREVIADO
Nº151/2019.**

Aho batez onartzen da proposamena.

Se aprueba la propuesta por unanimidad.



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

4. 2020KO ABUZTUAREN 17A TOKIAN TOKIKO JAI EGUNA IZATEA ADOSTEA, HALA BADAGOKIO.

2020 urtean abuztuaren 16a, San Roke eguna, igandea denez, tokian tokiko jai egun lokala abuztuaren 17ra, astelehenera, pasatzea proposatu da.

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2020ko jai egun lokala abuztuaren 17a izatea.

5. EUSKARAREN EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Aritzek adierazpena irakurtzen du (I. eranskina).
Osoko bilkurak aho batez adierazpenaren alde bozkatzeko du.

6. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

Osoko bilkurak aho batez bi adierazpenak egungo gaien sartzea onartzen du.

6.1) ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Itziar Irizarrek Azaroaren 25, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeke nazioarteko egunaren adierazpen instituzionalaren sarrera eta proposamenak irakurtzen ditu (II. eranskina)

Osoko bilkurak aho batez adierazpenaren alde bozkatzeko du.

4. ACORDAR, SI PROCEDE, DECLARAR EL 17 DE AGOSTO DE 2020 DÍA FESTIVO LOCAL.

Puesto que el día 16 de agosto de 2020, Día de San Roke, es domingo, se propone pasar el día festivo local al día 17, lunes.

El Pleno aprueba por unanimidad que la fiesta local del año 2020 sea el día 17 de agosto.

5. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL DÍA DEL EUSKERA

Aritz lee la declaración (anexo I).
El pleno vota a favor de la declaración por unanimidad.

6. DECLARACIONES INSTITUCIONALES:

El Pleno aprueba por unanimidad introducir en el orden del día las dos declaraciones.

6.1) DECLARACIÓN INSTITUCIONAL: 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LA MUJER.

Itziar Irizar lee la introducción y propuestas del 25 de noviembre, día internacional para erradicar la violencia contra las mujeres (anexo II).

El Pleno vota por unanimidad a favor de la declaración.



2019SPLE0016

16.Bilera; OHIKOA 2019/11/28

6.2) ADIERAZPEN INSTITUZIO- NALA: BOLIVIAKO ESTATU KOL- PEA.

Itziar Irizarrek Boliviako estatu kolpeari buruzko adierazpen instituzionala irakurtzen du (III. eranskina).

Adierazpenaren aldeko botoak:
EH Bildu udal taldea

- Gilen García Boyra, Alkatea
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga
- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea

- Ane Miren Egidazu
- Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea

- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

Abstentzioak:

Debarren Ahotsa udal taldea

- Pedro Bengoetxea
- Enrique Salgado

6.2) DECLARACIÓN INSTITUCIO- NAL: GOLPE DE ESTADO DE BOLI- VIA.

Itziar Irizar lee la declaración institucional sobre el golpe de estado en Bolivia (anexo III).

Votos a favor de la declaración:
Grupo municipal EH Bildu

- Gilen García Boyra, Alcalde
- Itziar Irizar
- Antxon Etxeberria
- Nerea Arrizabalaga
- Aritz Larrañaga
- Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotsa

- Ane Miren Egidazu
- Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV

- Iñigo Cambronero
- Eneritz Gómez
- Miren Esnal

Abstenciones:

Grupo municipal Debarren Ahotsa

- Pedro Bengoetxea
- Enrique Salgado



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

6. GALDE-ESKEAK

a) Pedro Bengoetxeak trenbideko tunelari buruz zer berri dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio gaur bertan telefonoz hitz egin duela Eusko Trenbide Sarearekin. Zailtasunak daudela esan dute, lanean ari zirela erorketa gehiago egon dela eta luzerako izango direla. Bilera proposamen bat egin die alkateak ETSkoei.

b) Pedro Bengoetxeak Itziarko Batzordea noiz bilduko den galdetzen du. Alkateak dio ez dela data finkoa baina saiatuko direla abenduan 12 edo 17. Ahalik eta azkarren jakinaraziko da.

c) Iñigo Cambronerok parte-hartze kontsultari buruz galdetzen du. Aldundiarekin hitz egin duela erantzuten dio Alkateak.

Horrenbestez, 19:50etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Jorge González Endemaño
Behin-behineko idazkaria /secretario
accidental.

6. RUEGOS Y PREGUNTAS.

a) Pedro Bengoetxea pregunta qué novedades hay sobre el estado del túnel del tren.

El alcalde responde que hoy mismo ha hablado por teléfono con Eusko Trenbide Sarea. Han dicho que hay dificultades, durante los trabajos de reparación se han producido más desprendimientos y se espera que la situación se alargue. El alcalde ha propuesto una reunión a ETS.

b) Pedro Bengoetxea pregunta cuándo se reunirá la Comisión de Itziar.

El alcalde responde que la fecha no es fija pero que intentará que se reúna el día 12 ó 17 de diciembre. Se notificará tan pronto como sea posible.

c) Iñigo Cambronerok pregunta sobre la consulta de participación.

El alcalde responde que ha hablado con Diputación.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 19:50.

Gilen García Boyra
Alkatea /Alcalde





2019SPLE0016
16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

I.ERANSKINA / ANEXO I

2019KO NAZIOARTEKO ADIERAZPENA
EUSKARAREN EGUNERAKO
Bide berriak, modu berriak
Ongi etorri etorkizunera!

DECLARACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2019
¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gandi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gandi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?

Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek,

El euskera viene saltando de siglo en siglo. De día en día. De corazón en corazón. Y, sobre todo, de boca en boca.

El euskera celebra hoy su día, más concretamente su Día Internacional. Pero sabemos muy bien que lo que hoy celebramos los y las vascohablantes y la ciudadanía vasca en general no se circunscribe a los límites de un solo día. El euskera salta también esos límites. Salta por encima de todas las fronteras, pleno de vitalidad en nuestros labios, siempre bienvenido en nuestros oídos. Nuestro euskera, apto para todo, ese euskera que a todas y todos nos pertenece.

¿Qué otra cosa podríamos celebrar hoy?

El euskera ha recorrido un largo camino, y, con él, la comunidad de vascohablantes y euskaltzales, en un esfuerzo sostenido para ganar el futuro. La sociedad vasca ha recorrido un largo camino para llevar al euskera, con toda dignidad, a todos los ámbitos y lugares. Y mucho es lo logrado. La propia acción nos ha enseñado, nos enseña a diario,



DEBAKO UDALA

2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, strategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

hasta qué punto es imprescindible actualizar los procedimientos, renovarlos, vigorizarlos a base de imaginación. Y todo el conjunto de quienes nos implicamos en las labores propias de la *euskalgintza* estamos dejando muy patente nuestra disposición y entusiasmo a la hora de interiorizar y poner en práctica esa enseñanza.

Acordamos las acciones. Aproximamos los diagnósticos. Tejemos iniciativas compartidas. Evaluamos juntos el trabajo realizado. Perfeccionaremos codo con codo todo cuanto sea susceptible de mejora.

Y la sociedad ha respondido con fuerza, haciendo suyas las nuevas estrategias y formas orientadas a aumentar el uso del euskera de manera nítida y sostenida.

Tenemos, por tanto, qué celebrar también en este Día Internacional del Euskera.

El exitoso ejercicio social que el año pasado se llevó a cabo activó de forma nunca vista hasta entonces a las y los vascohablantes, sea cual fuere el grado en que lo son. Activó igualmente, y desde una nueva perspectiva, a los poderes públicos y a las más diversas organizaciones sociales. Y activó, sobre todo, una actitud proclive y dispuesta a la renovación de estrategias y discursos.



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

Aldekotasuna horrela, konpromiso eragingarri eta praktiko bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

La actitud favorable al euskera dio, así, pasos hacia un compromiso eficaz y práctico.

Vislumbramos ya, en un horizonte cercano, la prolongación de aquella iniciativa. Reactivaremos el Euskaraldia, nuevamente en una atmósfera de acuerdo y colaboración, y el Día Internacional del Euskera del año próximo ocupará, cómo no, su lugar específico en el contexto de ese formidable ejercicio social.

No se limita a eso, sin embargo, el esfuerzo por aumentar el uso del euskera. De ninguna manera podría limitarse a eso. Es preciso trabajar en todos los ámbitos, a fin de que ese uso crezca con vigor.

Son muchos los ámbitos que exigen una labor específica, y entre todos ellos, uno se sitúa en el núcleo del devenir de la sociedad: la esfera de la economía, el trabajo y el consumo, motor principal de la vida social y ciudadana.

A nadie se le escapa la relevancia de la aportación recíproca entre el ámbito socioeconómico y el euskera. Porque somos muy conscientes de la inviabilidad de una normalización lingüística que no arraigue profundamente en el mundo del trabajo, la economía y el consumo.



2019SPLE0016
16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Azken batean, aldekatasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.
Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.

Ongi etorri etorkizunera!

Los principales agentes que operan en ese ámbito están dando pasos ciertamente sólidos. Y destaca entre ellos, sin duda alguna, la inserción del uso del euskera entre los elementos consustanciales a la más diversas organizaciones.

Nuevos caminos, nuevas formas, también en el ámbito socioeconómico.

Nuevas estrategias, por tanto. Nuevos compromisos. Nuevas maneras de responder al compromiso. Nuevas prácticas.

En definitiva, es una actitud, además de favorable al euskera, transformadora lo que nuestra sociedad está sustanciando por medio de la activación del conjunto de vascohablantes y euskaltzales.

En ello radica el futuro del euskera.

Un futuro que viene de la mano de nuevas vías y prácticas.

¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

II.ERANSKINA / ANEXO II

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Azaroaren 25a, emakumeen kontra burutzen den indarkeria mota oro, guztiz onartezina dela esateko eguna da; gainera, indarkeria sortzen duten eragile eta egitura guztiak errefusatzeko ditugula esateko eguna da, eta gure herrian ez dugula ez bakerik ez normalizaziorik izango emakume izate hutsagatik emakumeak hiltzen eta erasotzen jarraitzen den bitartean aldarrikatzeko eguna. Horregatik, egun honetan erakunde publikoak, borroka horretan dugun lehenetsuneko eragile-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu.

Beraz, Debako Udalak honako adierazpen instituzionala aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

ZIOA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Debako Udalak, bere egiten du gure lurralde, herrialde eta herriak, indarkeria matxistarik gabeko gune gisa eraikitze ardua. Eta lehenetsuneko konpromiso politikoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontrako borrokan, egiturazko jatorriaren eta betiketuen duen normalizazioan eraginez, orden sozial patriarkala ezinbestez aldatzeko eta, emakumeak libre biziko diren justizian eta berdintasunean oinarritutako elkarbizitza eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ereduak errealitate bihurtzeko xedez. Euskal Herrian, estatistikak aspalditik ari dira agerian uzten indarkeria matxistak gora egiten jarraitzen duela: urtea hasi denetik 3 emakume erail dituzte. Hala ere, ezin dugu ahaztu indarkeria honen adierazpen gehienek, egunero gertatzen direnak, normalizatuak eta inbisibilizatuak jarraitzen dutela.

Nola hedabideak, publizitatea, telebista, hezkuntza ereduak, emakumeen errepresentazio justuaren falta eremu guztietan edo euren presentzia genero estereotipo eta rol diskriminatzaileak bultzatuz, hala sinesmenak, praktikak eta jarrerak, besteak beste, injustua den eta emakumeak gutxiesten dituen orden sozialaren parte dira. Orden hori soziala, kulturala, ekonomikoa eta sinbolikoa da, bizitzaren arlo guztiak blaitzen ditu, publikoak nahiz pribatuak, eta, emakumeak genero mandatu patriarkalapean izateko asmoz, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak erabiltzen ditu.

Eraiketa matxistek gero eta arreta mediatiko gehiago erakartzen duten heinean, (gehienetan emakumeak berbiktimizatzeko edo erantzukizuna emakumeengan



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

uzteko errelatoekin), jendarteak irmoki gaitzesten ditu. Gure ardurak, ordea, haratago joan behar du: indarkeria mota latz hauek legitimatzen eta errazten dituzten indarkeria matxistak, mezu eta adierazpen desberdinen bidez egindakoak guztiak, ikusarazi behar baititugu: jendartean onarpen zabala dutenak eta normalizatuak mantentzen direnak, emakumeek egunero jasaten dituztenak, eta hala izan ez arren intentsitate baxu gisako identifikatzen direnak. Besteak beste, musika munduko hainbat letra zein jarrerak, film zein bideojokoetako rolek edo hedabideek transmititzen duten indarkeria sinbolikoaz ari gara, emakumeen bizitzak eta gorputzak kontrolatzeko saiakerak, eremu guztietan femininotzat jotzen denaren gutxiespenenaren bidez gauzatzen den indarkeria psikologikoaz edo soldata txarretan edo lan baldintza prekarioetan antzeman dezakegun indarkeria ekonomikoaz ari gara.

Aurten, mugimendu feministaren beste mugarri batean, milaka emakumek hartu dituzte Euskal Herriko kaleak, aski dela ozen esateko; milaka emakumek planto egin dute emakumerik gabe mundua gelditzen dela bisibilizatzeko; eta beste horrenbestek aldarrikatu dute sistema judiziala patriarkala dela eta emakumeak babestu beharrean ardura haien bizkar uzten ari dela esan dutenak, erasotzaileak justifikatuz.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasunak mantentzeko tresna nagusietako bat den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea, horrelako gertakari latz bat gertatzen den bakoitzean; gertakaria eragin duten arrazoietara jo behar da, sustraira jo behar da, eta hori egitera, erakundeon ardura ere bada.

Zeharkako esku hartze integralak eta iraunkorrak abian jarri behar ditugu: berbiktimizazioa baztertuta, emakumeak subjektu aktibo gisa hartuko dituzten esku hartzeak; errudun bilakatuko ez dituen esku hartzeak eta, ahots propioa, eragile aktibo diren neurrian, aitortuko dizkieten esku hartzeak. Horretaz gain, bermatu behar ditugu genero ikuspegi ahalduntzailea barnebiltzen duen artatze sistema eta erreparazio prozesuak, bai banakoak, bai kolektiboak. Giza eskubideaz ari garen heinean, instituzioen betebeharra da, alegia, mota guztietako indarkeriarik gabeko bizitzak izateko eskubideaz.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun eragile guztiok gure egin behar dugu, hala egiten ez badugu, indarkeria matxistari eusten jarraituko dugulako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea, indarkeria matxista sortzen, biderkatzen edo normalizatzen duten heinean gure instituzio eta erakunde aldatzea: erakunde publikoak, kultur-eragileak, hedabideak, lan-arloko eragileak eta eragile



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

ekonomikoak, ahaztu gabe banakakook dugun ardura.

Tokiko erakundeak, indarkeria matxista guztien kontra jarduteko eremu egokiak dira: erakundeak, eskolak, aisialdi edo kirol guneak, etab., betiere jendartea osatzen duten kolektibo eta arlo guztien artean burutu beharreko lana da, denok interpelatzen gaituen arazo soziala den eina.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

1.- Debako Udalak Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2.- Debako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorren sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.

3.- Debako Udalak herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu eta dagokion lurralde mailan, indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu-sarearen funtzionamendu egokia, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko du, beti ere, kontuan hartuz adin txikikoak eta biktimen seme-alabak.

4.- Debako Udalak honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abiatuko ditu, besteak beste ondorengo gaiak jorratu ahal izateko modu iraunkorren: autodefentsa feminista, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak, etab.

5.- Debako Udalak honek, nerabeei eta gazteei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak iraunkorrek abiatuko ditu emakume eta gizonen arteko harreman parekideak sustatzeko xedez, zehazki: hezkuntza sexu-afektiboa lantzeko, indarkeria matxisten askotariko adierazpenak desnaturalizatzeko, baieztatu onespina lantzeko, maskulinitate ereduak lantzeko, etab.

6.- Debako Udalak honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrek martxan jarriko ditu besteren artean, omenaldiak, zineforumak, bisibilizazio ekimenak (kaleen izenak



2019SPLE0016

16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

edo jardunaldiak, kasu), kalte-ordainketak, akonpainamendu soziala, etab. jasoz.

7.- Erakunde honetatik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

8.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.



2019SPLE0016
16.Bilera: OHIKOA 2019/11/28

III.ERANSKINA / ANEXO III

Adierazpen proposamena: Boliviako Estatu Kolpearen aurrean

Zioa

Azaroaren 10ean Boliviako Estatu Plurinazionalako Presidente Evo Moralesek bere dimisioa aurkeztu zuen, poliziek eta militarrek behartuta. Dimisioa eman baino lehen Morales presidentearen, bere gobernuko kideen eta Boliviako beste hainbat hautetsien senideen kontrako erasoak eman ziren.

Estatu Kolpe honen ondorioz, egoera benetan larria da eta konfrontazio zibilerako arriskua handia dela azpimarratu nahi dugu, izan ere estatu kolpea bultzatu duten indarrek errepresioarekin erantzuten ari zaizkio Moralesen alde antolatutako herritarrei. Aurreko hilabeteen izandako hauteskundetan Evo Moralesek bozen %46 lortu zituela eta hauteskunde horiek errepikatzeko prestutasuna adierazi duela azpimarratzekoa da ere.

Egoera honen aurrean, Debako udalak:

- Gogor salatzen du Bolivian ematen ari den estatu kolpea.
- Moralesen kontra altxatu direnei eskubide zibil eta politikoen errespetua eta gatazka negoziazio eta akordioaren bidez konpontzera dei egiten die, eta Estatu Kolpe honen kanpo-bultzatzaileei injerentzia gelditu eta Boliviako soberania errespetatzera deitzen ditu.
- Bere babesari adierazi nahi die Evo Morales presidenteari eta El Alton eta Bolivia osoan kolpearen kontra mobilizatzen hasi diren herritarrei.
- Herritarrei dei egiten die Estatu kolpe honi aurre egiteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzera.